


BALAIKE

100 pta.

51. zenb.



- Depuradora berria herriko urentzat
- Perretxiko garaian, mikologia astea
- Pintxoak eta piropoak euskararen festan

- **Xabier Arangurenekin
6 hilabete Andeetan zehar**

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221

P. Etxezarreta, 42 862528



Itzurun Zuhaltz bidea, 1
Tel: 943 86 24 30 / 86 03 15

ZUMAIA

agustin
HARAKITZA

Bertako haragia eta geuk egindako txarkuteria
Aurrez prestatuko jakiak

konfiantza osokoak

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE
BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Antxoka Agirre
Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esti Esteibar
Ane Osa
Esther Aizpurua
Iratxe Aizpurua
Esther Martínez
Joseba Ossa
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Ane Osa
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Juan Luis
Romatet, Miriam
Romatet, Jon Manzi-
sidor, Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Iñigo Garcia, Jose Luis
Barredo

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga,
Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri
Ilargi eta konpainia

Publizitatea

Iñaki Zubimendi
(943 143226)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Zinema Paradiso



Esther Aizpurua

Zumaian ez genuen zinemarik Giuseppe Tornatoreren "Cinema Paradiso" ikusi nuenean, eta zinemaren lehen urte haien inguruko irudiak ikustean, garai bateko zine aretoetako giro hura ikustean, Aita Mari zaharraz gogoratu nintzen: Txurre edo Manolin poltsaka letxarkeri erosi eta barrura (poltsa ezkutuan zela noski), filma sekula ez puntual eta ondorioz areto guztia aho batez... "que empiece ya que el publico se va!" ...argiak itzaltzean festa, baina pantailaz kanpokoak. Hango algarak, txaloak, bozgoran egindako komentarioak, eta tartean... noizean behin... inork espero ez zuenean... "yatamo con lá pipá!!! Quiéntá comiendo pipa!!!" Karraxi hura entzun zain egoten ginen ia denok, orduan bakarrik ixiltzen ginen den-denak.

Aspaldi ahaztuta neukan PEPITEN istoria, baina orain asko ez dela Donostiako Multi zine batean izan nintzen: Sarreran, super taberna, alde batera mega letxarkeri denda eta bestera, maxi refreskoak... nahi adina gauza hiper merienda egin eta ...bide batez filma ikusteko. Orduan akordatu nintzen berriro pepiten munstroaz. Lehen nekez, kostata eta erdi ezkutuan jaten genituen guztiak eskaini egiten zaizkigu. Aro berriko mamuak, eskuzabal denetik eskaintzen digu.



Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 02 50	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44


Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaiko Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Kasualitateak

1977ko urtea izango zen: ikasle garaia. Estudiante pisu batean bizi nintzen, pare bat urtez edo bizi izango nintzen han. Fijoak bi-hiru lagun; besteak boladaka bizi izan zirenak: eta bisitan edo pasabidean gurean izandakoak mordoxka. Klase guztietako jendea: unibertsitari zintzoak, artista izateko gogo biziz etorritakoak, besteren kontura erreparurik gabe bizi zirenak, xelebrea, alproja hutsak... Izenekin gogoratzen hasita, erdiarekin ere ez nintzateke gogoratuko eta berri, dozena erdiren batena edo izango dut.

Natorren baina izenburura. Orain dela lau-bost egun gogoratu nintzen, zergatik ez dakit, garai hartan ezagututako horietako batekin: mutil oñatiar bat zen, pisuko bati bisita egitera etorri eta hiru bat hilabetez gurekin gelditu zena. Pintatu egiten zuen (idatzi ere bai zerbait), oso koadro abstraktuak eta niri ezer gutxi esaten zidatenak. Tipo berezia iruditu zitzaidan, xeble samarra.

Hogeita bat urte pasa dira ordutik. Ez dut harrezkero ez ikusi ez bere berririk izan eta gogoratu ez dakit noiz azkenengo aldiz. Eta herenegun ikusi dut non eta egunkarian argazkia eta guzti zekarren artikulua batean. Bere ibilbide artistikoa eta gaur egun egiten ari den lanaren berri ematen zuen. Poz hartu nuen eta kasualitateaz harritu.

Garai haietara joan naiz eta, ezinbestez, nostalgiak harrapatu nau. Egarrri ginen, gauza askoren egarrri baina, batez ere, jendearena, lagunena; eta egarrri hori asetu egiten genuen, lagunak gure bizitzaren parte zirela ere esango nuke. Gazteak ginen eta ausardiarik ez genuen falta.

Urteak pasa dira, urte mordoxka eta oraindik egarrri hartatik gelditzen zaidala somatzen dut eta gazte ere banaiz, ze demontre!... baina egarrria ez da berdina eta asetzeko ere ez dut hainbeste behar. Orain, ostiral gau honetan, orduan sekula ere egingo ez nukeena egingo dut: lagun artekoa eta deskantsuaren artean, deskantsua aukeratuko dut. Bizitzaren legea?



Xabier Azkue

Berriz ere, bai euskarari

*Zerbait badator eta
zumaiarrok adi!
kanpainaren leloa
da "Bai euskarari"*

**KONTSEILUA harturik
bidean gidari
eskatu behar zaio
Euskal Herriari:
euskara salbatzeko
berriz jalgi hadi.**

*Egoera larria
dela da ezagun
laurdena baino ez gara
hemen euskaradun
gabonak baino lehen
ehun mila lagun
elkartu eta gogor
beharko da jardun
gure euskara salbu
ikusi dezagun.*

ITZIAR URANGA

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309**AIZMAN-KOS S.L.****SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK**Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxa: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA**ALBAITARITZA
KLINIKA**DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-


Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Itsasoari harmailak egingo dizkiote Inpernupen

Obrak udaberrirako
hastea espero dute
Udaletxean

Lucianok, udaletxeko arkitektoak, azaldu digunez Madrileko 'Costas'-en onarpena besterik ez zaio falta proiektuari, eta hau ez omen da tramite bat baino. "Jaurlaritzako 'Costas'-en onarpena da balio duena, honek egiten baitu hemengo proiektuen kriba" esplikatu digu.

Beraz, eta Jaurlaritzaren oniritzia lortu dutenez, hil honetarako espero dute Madrilekoen firma, eta udaberrirako obrekin hasteko moduan egongo omen dira. Obren iraupena sei hilabetekoa litzateke, eta aurrekontua Jaurlaritzaren gain leudekeen 100 milioi pezetakoa.



Beobide museoaren atzealdeko karreteratik hasiko da zoru berria, eta autoek Inpernupera sartzerik izan ez dezaten espaloi zabal eta jarlekuekin diseinatu dute sarbidea.

Proiektuaren ideia nagusia Inpernupen itsasoari harmaila batzuk, itsasozaleontzako Anoeta edo San Mames txiki bat, egitea litzateke. Honela, Paolaren plataformaren nahiz ondoko beste mendiaren kontra eta hauen koskak aprobetxatuz altuera desberdineko terraza batzuk ezarriko dituzte bi aldeetan, batetik bestera igartzeko eskaierekin eta barandatzat egurrezko langa batzuekin atonduak. Beheko zabalunean, egitura osoaren

elementu zentral bezala, geiser bat ezarriko dute, hau da, hodi baten bidez itsasoarekin lotuta egonik honen bultzada bakoitzean ur txorrotada handi bat gorantz botatzen duen zuloa. Eta obra biribiltzeko Itzurun aldera dagoen pasabidea pasealeku bihurtuko dute 200 metrora dagoen behatoki bateraino.

Proiektu polita dirudi benetan Inpernupen egin behar dutenak. Lastima ordea, Itzurunen egin zuten bezala, Anoetakoen moduko fokotzar batzuk jartzeko mania hori. Ilargiarekin nahikoa da.

ESTAZIO Kaler. 25 20.750 ZUMAYA
GIPUZKOA Kaler. 33 C 3ª 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 96 07 79 - (943) 14 09 40



TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazal Injeneru Teknikoak

Jardineri diseinu
eta mantentimendua
Nekazal zerbitzuak
Kiral zelaia mantentimendua
Informe eta
aholkularitza teknikoak.
Balorapenak

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

ANA
ETXeko ZAPIAK



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe
*Gizonezkoen
erropak*



Zumbillo, 4 Tel. 861407

ARGIA
ARROPADENDA



Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
*Okindegia
eta gosariak*



Kale nagusia, 2 Tel. 861521



'Zerbitzu Elkartea' enpresa arduratuko da kaleen garbiketaz

Urteko 46 milioiko kostua izango du zerbitzuak

Licsa, Cespa, Ferroser, FCC eta Zerbitzu Elkartea enpresen eskaintzak aztertu ondoren Udaletxeak azken hau kontratatzea erabaki du datozen zortzi urtetan herriko kaleen garbiketa eta zabor bilketarako.

Zumaiarrontzat berria izan arren, orain arte eta urte askotan zehar FCC ('Fomento de Construcciones y Contratas') arduratu baita lan hauetaz, esperientzia handiko enpresa da 'Zerbitzu Elkartea'. Azkoitia eta

Aretxabaletan kaleen garbiketaz arduratzen dira, Tolosan kaleen garbiketaz gain zabor bilketa eta garraio publikoa beren kargura dituzte, eta hainbat zerbitzu burutu izan dituzte Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioentzat. Zumaian, kaleetako zoruaren baldeoa astelehenero eta ostegunetan hamabostean behin burutuko dute, herriko seinaleztapenaren mantenuaz eta Santio bideko aparkaleku eta atsedeen-lekuen garbiketaz arduratuko dira, eta urtero 16 alditan garbituko

dituzte kontenedoreak. Ez da lan erraza herria garbi mantentzea, baina ondo preparatuta datoz, Hannibal-en ejerzitoak baino tramankulu gehiago badituzte behintzat: Kontenedoretako zaborra jasotzeko bi kamioi, altzari zaharrak jasotzeko beste kamioi bat, erratza pasatzen duten bi ibilgailu, fregatzeko beste bat eta baldeorako beste bat, kontenedoreak garbitzeko ekipoa, fumigaziorako motxila, pintadak borrazteko hidrogarbigailua, eta todoterreno bat. ◀

Depuradora batek garbituko ditu ibaira botatzen ditugunak

2000 milioi gastatuko dira ibaiaren saneamendu egituran

Europako fondo batetik lortu ditu udaletxeak 2000 milioiak. "Zumaiaren saneamendurako Diputaziotik etorri behar zuen dirua asko atzeratuko zela ikusten genuen, Diputazioaren xedapen batek ibaien garbiketa hauen iturburutik hasita burutu behar dela ezartzen baitu. Ondorioz, proiektu bat diseinatu eta European aurkeztea erabaki genuen, eta onartu egin digute" esplikatzeko digu Lucianok, udaletxeko arkitektoak.

Etxeetako hondakinak ibaira botatzen dituzten isurbide guztiak hodi nagusi batzuetara lotuko dituzte. Hodi hauek ur zikinak maldan behera ekarriko dituzte Paolbidetik nahiz Narrondotik arrauneko lokalaren pare horretan egingo duten bonbeorako estazio bateraino, eta hemendik trenbide zaharraren zabalunearen kurban jarriko den depuradora batera eramango dira, garbitu eta berriro ibaira botatzeko.

Narrondoren bi ertzetako espaloiak berritzerakoan hodi berriak sartzeko aprobetxatu zuten lanaren zati bat aurreratua dute jada eta 99a amaitzerako bukatuta egongo dela espero dute. "Ibaiaren ertzeko zona guztia hankaz gora jarriko dugu" abixatzen du Lucianok, "baina mereziko du, ibaia askoz garbiago geldituko baita". ◀



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067



Taberna - jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9

Tel. 862441

Hona hemen
ontzi
horietako
baten
uretaratzea.



Balentziaga ontziolak bi atoiontzi berri egin ditu

Urriaren hasieran uretaratu ziren bi ontziak

Balentziaga ontziolak bi atoiontzi edo erremolkadore berri egin ditu Holandako K&K International-Kotug entpresarentzat. Aurreko hilabete hasieran uretaratu ziren eta guztira Balentziagak 2.000 milioi pezeta jasoko ditu lan honengatik. Ontzi berriak oraindik Zumaiako portuan daude azken ukituak jasotzeko eta urte amaieran beren jabeei ematea espero da.

Bakoitzaren luzera 32 metrokoa da, zabalera 12 metrokoa eta potentzia 6.300 zaldikoa da, nahiko handia era

honetako ontzientzako. Hauen diseinua berritzailea dela medio erreferentzi puntua izan da beste armadore europar batzuentzat Balentziagak Hamburgoko Azokan jarritako stand-ean. Berritasun nagusia aldiz, propulsioko sisteman datza: hiru motore Caterpillar motakoak eta bakoitza 2.100 zaldikoa. Beren ezaugarriengatik gainera, leku desegoki eta estuetan lan egiteko aproposak dira.

Atoiontzi hauek Alemaniako portuan egingo dute lan petroliontzi eta bestelako ontzitarrei lagunduz. Hiru

edo lauk egin ohi duten lana bi erremolkadorek bakarrik egitea lortuko da.

Balentziaga ontzian baxurako arrantziontzi bat eraikitzen ari dira, orain Getariako Santana Berria CB-rentzat, eta abuztuan, 1.700 milioi pezetako kontratu bat lotu zuen. Honen bitartez, "supply" erako ontzi bat egingo dute Estatu Batuetako konpainia batentzat, Mexikoko Golkoan dituzten petrolio plataforma batzuetan lan egiteko. ◀

Autoenplegua eta enpresa proiektu berriak bultzatuz

Institutuak ere enpleguaren aldeko programa bat jarri du martxan

Eskualde Garapenerako Agentzien eta Kutzaren arteko akordioari esker, 18 eta 35 urte bitarteko gazteen artean autoenplegu jarduerak eta enpresa proiektuak bultzatuko dira, proiektu errentagarriari aholkularitza eta finantzaketa eskainiz.

Urola Kostako Udal Elkarteak gai honetan aholkularitza ematen du eta Kutzak, berriz, aztertutako proiektuei finantzaketa berezia eskainiko die, interes oso baxu batekin.

Horregatik, dei egiten zaie autoenplegurako edo enpresa baterako ideien aldeko promotore gazte guztiei Urola Kosta Udal Elkartearekin harremanetan jartzeko, Enpresa Sustapena Sailarekin hain zuzen. Horretarako, Zarautza hurbil zaitezketek, Ebro Etxera (Zumalakarregi 16, 1. solairua), 943-131374 telefonora deitu edota urolakosta-empresa@jet.es helbide elektronikora zuzendu, eta Mila Gallastegirekin hitz egin.

Bestalde, Zumaiako Institutuak ere enpleguaren aldeko programa bat jarri

du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Honen barnean lau ikastaro emango dira: uren analisisa lehenengoa, lurrik gabeko landaketa bigarrena; arrain lantegietako segurtasun eta higiena hirugarrena eta laugarrena, arraina maneiatzeko oinarriko lanak. Ikastaroren bat hasi da dagoeneko eta norbait hauen inguruan interesaturik balego, institutuan bertan jaso dezake informazioa.

Tel: 943-860809/943-862320.

balezulo
importaturiko erroa eta artisautza

Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449

BARRENETXEA
Garraioak

GARRAIO ASTUNAK

BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

EAJ garaile eta EH nabarmenki igo


Urriaren 25ean egin ziren Eusko Autonomi Elkarteko hauteskundeak emaitzari buruz prentsaren bidez nahikoa jakin dugu. Zumaian ere, Autonomi Elkartean orokorrean gertatuaren antzerakoa izan zen. Garaile EAJ izan bazen ere (1.451 botorekin), EHren igoera da nabarmenena, aurreko hauteskundeetatik 404 boto

igo baita 1.306 boto lortuz. Hala ere kontuan hartzekoa da errolda ere aldatu egin dela 1994tik hona, aurten 6.732 zumaiarrek baitzuten bozkatzeko aukera eta orduan 6.418k. Hala ere, ez da hau boto igoeraren arrazoi bakarra, abstentzioa ere nabarmen jaitsi baita. 1994ko hauteskundeetan %38,89ko abstentzioa izan bagenuen

Zumaian, aurten %28,12koa izan dugu.

Datorren urteko ekainean egitekoak diren udal hauteskundeetan honelako emaitza errepikatuz gero, Zumaia Udalean daukagun panorama politikoa nabarmen alda liteke. ◀

BOTO KOPURUA		
	1998	1994
EAJ	1.451	1.350
EH	1.306	902
EA	640	583
PSE-EE	737	601
PP	434	223
IU	164	162
UA	2	6
BESTEAK	15	1





AUTO-ESKOLA





- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAIÀ

Basadi, 12 behea Tel. 861018

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45 Tel. 861485

CARLIN

OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3 Tel/Faxa: 143453



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan



Zumaiako artistak 'egin' en alde

Zozketa bat antolatu da eurek emandako lanekin

Dani Carballo, Jon Garate, Ander Hormazuri, Keixeta, Bertil Lagerström, Ion Manzisidor, Aran Santamaria, Barbara Stammel eta Igor Zendoiaeren lanak azaroaren lehen bi asteburuetan izango ditugu ikusgai Oxforren. Zumaiako artistek ere beren bultzadaxoa eman nahi izan diote proiektu berriari, eta artelan hauekin zozketa bat antolatu da dirua biltzeko. Bost sari emango dira, eta sarituek erakusgai dauden lanen artean gehien gustatzen zaiena hartzeko aukera izango dute zenbakiak ateratzen diren ordenean (1. saria duenak lehen-dabizi, 2. duenak bigarren...).

Txartelak Oxforren bertan eta herriko hainbat tabernatan daude salgai. Zozketa Azaroaren 15ean egingo da, egunkarian eta tabernetan azalduko dira zenbaki sarituak, eta tabernetan utzi beharko dira azaroaren 22a baino lehenago.

Proiektu berriaren aurkezpena

Urriaren 28an proiektu berriaren aurkezpena egin zen Oxforren. *Baietz Fundazioaren* partetik Iosu Txapartegi, Zumaiako *Baietz Taldearen* partetik Erramun Telleria eta 'egin'eko langileen partetik Koldo

Landaluze aritu ziren hizlari lanetan eta jende mordoaz azaldu zen entzutera. 'Txapas'ek diru bilketarako ezarri dituzten sistemak azaldu zituen, Erramunek Zumaiaren burutu asmo dituzten ekimenak eta Koldok langileen egoera larria. Euskara gehiago behar duela, kirol gutxiago eta kultura gehiago, 'egin'eko langile guztiak hartu behar direla, irratia ere premiazkoa dela... bertaratu zen jendeak izan zuen egunkari berriak nolakoa izan beharko lukeenaren inguruan bere iritzia azaltzeko aukera ere. Ea guztien gustua egitea posible den. ◀

Arrazakeriaren aurkako marxistek hitzaldia Zumaiari

Liverpool-etik Ciudad del Cabora oinez egiteko asmoa dute

Urriaren 7an 'Arrazakeriarik gabeko mundu baten alde'-ko marxisten partaideek, dozena bat lagun, Britainiarrak, Tibetarrak eta Japoniarrak, Zumaiari egin zuten geldialdia Forondan hitzaldi bat emateko. Esklaboen trafikoak Europan egiten zuen ibilbidea, Liverpool-etik Ciudad del Cabo-ra, garai hartan esklaboek egin ohi zuten moduan, oinez, eginez arrazakeria salatzea da marxa honen helburua, eta Komunitate Bakezale Anglikarrak, Bakearen Aldeko Nazioarteko Komunitateak, Adiskidetzaren Aldeko Nazioarteko Komunitateak eta Desmond Tutu erreberendoak bultzatzen dute. Giroa berotzeko tanborren laguntzarekin mantra

batzuk kantatu eta hitzaldira azaldu ginen guztiak banan-bana agurtu ondoren hitzaldi kuriozkoa eman ziguten Joseba Ossaren itzulpenarekin.

Beren istoria eredu gisa planteatzen zuten, arrazakeriaren arazoa eta 3. munduaren egoera larriari aurre egiteko hitz politikak eta limosnak erregalatzeari utzi eta benetan inplikatzuz ekimen serioak martxan jartzeko beharra zegoela azpimarratuz, beharrezkoa den inplikazio horren eredu gisa. Jendearen galderei erantzunez egunean 25 bat km egiten dituztela, bide guztia 1999ko uztailerako bukatuta izatea espero dutela

eta jendeak eskaintzen dienarekin konpontzen direla azaldu ondoren ez zutela gaua non pasa aitortu ziguten. Beobidetarrek eskaini zieten afaria eta lo egiteko Tomasenean galdetzekotan gelditu ziren. ◀



EGUZKI PUB
Koktel bereziak
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin / elektrizitatea, s.l.
instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antena - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés Instalador Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+
CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

Onddoetatik perretxiko-etara

Zumaiako Mikologia astea burutu berri dugunean orri hauetan perretxikoei buruzko zenbait bitxikeria kontatzeko aukera eman digute.



ONDDOAK

Onddoek bizidunen erreinu bat osatzen dute animalia eta landareetatik at eta organismo eukariotiko (1) eta heterotrofoak (2) dira; elikagaiak xurgatu egiten dituzte, eta ez irentsi, animaliek bezala. Hifa izeneko harizpiek osatzen dituzte, mizelioetan elkarturik. Onddoek bi ugalketa mota dituzte: asexuala, hau da, esporen bidezkoa, eta sexuala, hifen elkarke-taren bidezkoa.

Espezie ezagunak ehun mila baino gehiago dira, eta haien sailkapenean zenbait zatiketa ditugu. Izen teknikoekin ez aspertzeko, aipatu, onddoak lizunak (3), legamiak (4) eta hain ezagunak ditugun perretxikoak direla. Likenak berriz, onddo eta algen arteko elkarketak dira. Onddoek zenbaitetan, esporak banatzeko egitura bereziak eratzen dituzte, perretxiko izenarekin ezagutzen ditugunak.

Hortik aparte, onddo izenarekin ezagutzen dira perretxiko mota batzuk

zehazki. Txapel mamitsua dute eta azpialdea porotsua (esponja). Hauen artean ezagunenak onddo zuria, onddo beltza, Satan onddo...

PERRETXIKOAK

Perretxikoek hanka eta txapelak dituzte. Txapelaren azpian atal emankorra dago, gehienetan orritxo (laminaz) eraturik; beste batzuetan poroek, orratzek eta tolesdurek osatzen dute. Perretxikoek, beste egitura batzuk izaten dituzte maiz: hankaren oinaldea biltzen duen zorroa edo bolba, eraztuna, gortina, etab.

Itxura, kolore, usain eta zaporean bereizten dira. Bereiztasun guztiak aztertu behar dira perretxiko bat sailkatzean: txapelaren forma, hanka, mamiaren trinkotasuna, bolba edo eraztuna ba ote dagoen eta orri nahiz esporen kolorea. Zehaztasun gehiago izateko erreakzio kimikoak eta mikroskopioa kontuan hartu behar dira.

Perretxiko batzuk zuhaitzetako sustraiekin zuzen-zuzen loturik daude mikorrizak eratuz eta baso batzuetan bakarrik aurki daitezke.

PERRETXIKO TOXIKOAK: POZOINKETAK

Hasteko ohar garrantzitsu bat: ez dira fidagarriak ohiturak ezarri dituen zenbait prozedura perretxiko toxikoak bereizteko (zilarra beltzatu, bareak ez dituela jaten, etab.) .

Perretxikoak jateko oso ziur sailkatuta izan behar du eta zalantza txikiena nahikoa litzateke perretxiko hori ez jateko.

Pozoinketak era askotakoak izan daitezke eta zenbat eta beranduago igarri orduan eta larriagoa da. Laburtzeko hiru taldetan bildu ditugu:

- **Liseri aparatua:** tripako mina, goragalea (gonbituak) eta beherakoak. Jan eta hiru ordu baino lehen azaltzen

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA

Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

ENTER
INFORMATIKA

Ordenagailu salmenta
zerbitzu teknikoak
hardware eta software
informatikako kurtsoak

Tel. 861175
Faxa: 860550

Baltasar Etxabe z/g

expert
ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6 Tel. 861078

dira kalteak. Ez dute arazo larrik ekartzen baina batzutan eritetxera joan beharra izaten da. *Agaricus xanthoderma*, *Entoloma lividum* eta beste batzuek eragiten dituzte.

• **Nerbio sitema:** alkaloide ezberdinek eragiten dituzte, hauen artean muskariak. Ondorioak lau ordu pasa baino lehenago azaltzen dira gehienetan: izerdia, bihotz taupaden eta arnasketaren moteltzea, haluzinazioak... Kuadro kliniko larria osatzen dute eta oso gutxitan heriotza. Sindrome hau eragiten duten perretxiko arriskutsuenak: *Clitocybe asko*, *Mycena batzuk*, *Amanita pantherina* eta *Inocybe ataleko* beste batzuk.

• **Sindrome ziklopeptidikoa** (faloidinikoa): oso larria da, askotan hilgarria. Jan eta handik lau ordu baino beranduago azaltzen dira lehenengo sintomak, gehienetan zortzi eta hogeita lau ordu bitartean baina batzuetan beranduago. Beherakoa-ekin hasten dira, ura galtzen da, ikterizia (5), gibela erasotua izaten da, eta kasu larrietan koman sartu eta heriotza.



- (1) Euskariotoak: nukleodun zelulak dituzte.
- (2) Heterotrofoak: ezin dute bere materia egin. Ez dira fotosintetikoak landareak bezala.
- (3) Lizunak: hezetasunarekin sortzen diren onddo mikroskopikoak.
- (4) Legamiak: hartidurak eragiten dituzten zenbait onddo mikroskopikoak, ogia, sagardoa etab. luze bat egiteko erabiliak.
- (5) Ikterizia: azala horitzea; nabarmena izaten da begietan.



Lepiota brunneoicarnata.

Zumaiako dunan azaltzen den perretxiko hilkorra. Edozein txanpinoiekin nahastu daiteke. Ez bildu Santixoko perretxikurik

◀ ZUMAIAKO NATUR TALDEA

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 861330

GANBARA

TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 860959

ERTZ informatika

ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET

Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 943 14 33 95

Xabier Laskibar, perretxikoetan aditua

“Dunak eta Artadi oso leku preziatuak dira mikologoentzat”

Xabier Laskibar, Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikologia Saileko partaide eta fundatzailea da. Mikologiari buruzko bibliografia handiaren egilea da eta erakusketa nahiz jardunaldi askotan aholkulari lanak egin ditu. Saillapenean aditua, “Mikologia Ikastaroa Farmazeutikoentzat” deituriko jardunaldietan esku hartu du. Eritetxeetan pozoinaketa kasuak daudenean aholkua emateko deitzen diote sarritan.

■ Noiz eratu zen Aranzadiko Mikologia Saila?

1965ean. Lau lagun ginen orduan, baina hauetako bat hil, beste biek beste kontu batzuetara dedikatu eta nik neuk bakarrik jarraitzen dut.

■ Ze lan egin duzue ordutik hona?

Saillapena. Euskal Herriko 3.000 bat perretxiku sailkatuta ditugu.

■ Beste herrialdeekin harremanik baduzue?

Orain dela urte batzuk, ez Euskal Herrian, ezta Bartzelona eta Madrilen ere, ez zegoen mikologiaren inguruko aditurik. 60ko hamarkada hasieran, Miarritzen ezagututako lagun baten bidez “Societe Micologique de Bearn” ezagutu genuen Paben. Elkarre honi esker lortu genuen informazio asko eta han bertan ere ikusi genuen lehenengo perretxiko erakusketa. Beraiekin ikasi genuen perretxikoak sailkatzen eta handik etorri ziren hori egitera gure lehenengo erakusketetara.

■ Nola dago gaur egun Aranzadiko Mikologia Saila?

Oso ondo, jende oso gaztea dago interesatuta gainera gai honekin. Material aldetik ere nahiko jantziak gaude eta bibliografia ere handia dugu.

■ Europa mailan herri perretxikozalea al da Euskal Herria?

Bai, hemen beti izan da afizio handia, batez ere Gipuzkoan. Europako herrialdeetan alde mediterranearra mikofiloa da (perretxikozaleak) Grezia ezik eta baita Errusia zein Europa erdi aldea ere. Atlantikoan berriz, Euskal Herria da bakarra, beste guztiak mikofoboak dira (ez dira perretxikozaleak). Diotenez, ijitoak izan ziren Euskal Herrira zaletasuna ekarri zutenak.

■ Lehiaketak eta erakusketak?

Perretxiko lehiaketak egiterakoan mendia gehiago kastigatzen da eta erakusketetan autobusa jartzen ez bada hobe. Perretxikoak galtzen ari dira, gero eta gutxiago dago; arrazoiak



honako hauek izan daitezke: klima aldaketa, euri azidoa, fertilizanteak...

■ Bukatzeko, Zumaia toki interesgarria al da ikuspuntu mikologikotik?

1992an Zumaiako erakusketara etorri ginenean harrituta geratu ginen dunetako perretxikuak ikusirik, eta azken bost urteetan oso lan interesgarria izan da guretzat. Hurrengo urteko erakusketan, Artadiko oso perretxiku bereziak ikusi genituen. Zarauzko J. Luis Albizurekin batera, oso ondo miatu dugu azken urteotan paraje hori eta poz handia eman digu estatuan lehenengoz ikusi den lehenengo perretxiko mota aurkitu dugulako. Honetaz gain, beste bat ere topatu dugu mundu mailan beste behin bakarrik ikusia izan dena. Pena da Artadin ganadua sartzen hasia dela zelaietan eta bestalde dunak ez direla zaintzen. Mikologoentzat bi zonalde hauek oso leku preziatuak dira.

◀ ZUMAIKO NATUR TALDEA



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

Xabier Aranguren:
“Horrelako bidaiak terapia bikaina dira”

Xabier Arangurenek aspaldiko ametsa gauzatu du aurten. Bizikleta hartu eta 6000 kilometro egin ditu Andeak hegoaldetik iparraldera zeharkatzeko. Otsailaren 21etik abuztuaren 20ra, esperientzia berriz beteriko abentura bizi izan du Xabierrek. Paisaia zoragarriak aurkitzeaz gain, pobrezian zoriontasuna aurkitu duen jendea ezagutu du. Horrelako bidaiak, “gure kulturak, Europakoak, dituen gaitzez ohartzeko terapia bikaina omen dira”.

■ **Hego Amerikara egin duzun bidaia luze hau, txikitako ametsa omen da.** Txikitakoa ez, baina orain ez dakit zenbateko kontua da. Badakizu, epe luzera egiten diren proiektu horietakoa. Ni beti izan naiz mendizalea, eta Andeak mendikate luzeena dira. Bertan barietate izugarria aurki



Xabierrek Andeetako mendikatea zeharkatu du hegoaldetik iparraldera bizikletaz.

daiteke, leku hezeak, lehorrak, izotza, altiplanoa... Gero, nire eskuetan erortzen diren artikulu, liburu, atlas eta antzerako guztiak irakurtzen ditut aspalditik. Andeak beti izan dira niretzat erreferentzi puntua. Eta badakizu, urteak pasa eta urteak pasa eta azkenean erabaki nuen urrats hori ematea.

■ **Gauza bat da amets bat izatea, buruan bidaia hori irudikatzea, beste bat gauzatzea. Nola ematen da pauso hori?**

Gehienbat animatu nindutenak Errenteriko bikote bat izan zen, orain dela urtebete. Haiek bidaia hau egin zuten eta beraingana jo nuen, esperientziaren berri izateko. Beraiek sartu zidaten azken txispa. Orduan erabaki nuen. Hori bai, hasieratik pentsatu nuen ez nuela bakarrik egingo, lagun bat bilatu behar nuela, baina ez da batere erraza. Nor joango da hara horrelako bidaia bat egitera! Aldizkari batean irakurri nuen kataluniar batek bidaia hori egin nahi zuela. Harrema-

netan jarri eta elkarrekin joatea erabaki genuen. Total, Santiago de Chilen zitatu ginen.

■ **Eta han elkar topo egin zenutenean, zer gertatu zen?**

Han hasi ziren lehen gorabeherak. Nahikoa pertsonaia berezia zen. Txileko hegoaldera jaitsi behar ginen hantxe baikenuen bidaiaren abiapuntua. Bidaia trenean eta autobusean egin behar izan genuen eta nahikoa konplikatu izan zen. Dirudienez, gehiegi izan zen beretzat. Nik esan nion txipa aldatu beharra zegoela eta Europako puntualitateak eta pentsamoldeak alde batera utzi. Berak ezetz. Bidaiari lehenago ekitea erabaki zuen, hain hegoalderaino jaitsi gabe. Eztabaida izan genuen. Hortxe banandu ginen. Nik behetik hasi nahi nuen, Patagoniatik, inguru hura oso polita baitzen.

■ **Abiapuntua Puerto Montton zenuen. Nola ekin zenion bidaiari?**

Eguraldi txarra aurkitu nuen eta behar nituen gauza guztiak erosteko

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA · JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzueterako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334

aprobetxatu nuen. Baita ere aurretik nuenaz jabetzeko. Bidaiari ekin nion, eta lehen zatian Txile eta Argentina arteko mugan zehar ibili nintzen. Hortik Atacamaraino sei bat aldiz zeharkatu nuen muga. Gero, Altiplanoatik aurrera ibilbidea zuzenagoa izan zen. Amaiera Guarazen izan zen, Xabier Aldalur egon zen inguru horietan.

■ Zuk errealitatean aurkitu duzunak amestu zenuen bidaia gainditu al du?

Nik nire bidaia antolatzerakoan bi motatako eremuak eta lekuak ikustea eta aztertzea planteatzen nuen. Alde batetik, ohiko lekuak, turistikoki esplotatuak daudenak. Cuzco adibidez. Eta beste aldetik, ibilbide horietatik kanpo gelditzen diren eremuak. Pixka bat jende gehienarentzat deskubritzeko dauden lekuak. Etxean lehen eremuari buruzko informazio nahikoa banuen, baina bigarrenari buruz ez. Informazio hori bidaian bertan lortu dut, jendeak esandakoarekin. Niretzat bidaiaren zati hau zen interesgarriena. Bazter



Mota guztietako paisalekin egin zuen topo. Argazkian, Atacamako basamortua.

“Gaua nonbait pasa behar nuen eta...”

Atacamako basamortua zeharkatzerakoan izan zen, lehenengo egunean. Bidaiako areririk gogorrena haizea izan dut, eta egun hartan gogor jotzen zuen. Altiplanoan gogor jotzen zuen eta bertan oso jende gutxi bizi da. Planifikazio bat egin beharra dago leku batetik bestera joateko. Egun hartan kalkuluak ez ziren oso zehatzak izan. Esan zidaten langile batzuen kanpamentua zegoela kilometro batzuetara, baina hori oso erlatiboa da, han kilometroa zer den apenas baitakite. Hura beste mundu bat da. Gaua gainean nuen eta ez nuen langileen kanpalekua aurkitzen. Etxe txiki bat ikusi nuen eta bertara joan nintzen. Izugarritzko haizea eta hotza egiten zuen. Ez zegoen inor barruan eta atea itxita zegoen. Kolpe bat eman eta zabaldu egin nuen. Egoera hartan ezin besterik egin. Sartu nintzenezan ikusi nuen etxe bat zela, ohe eta guzti. Horrelakorik hemen egin izan banu kartzelan egongo nintzateke. Lasai afaldu eta gaua bertan pasa nuen. Goizeko bostetan, artean ilun zegoela, andre zahar bat azaldu zen eta izugarritzkoa montatu zen. “Gringo me has malogrado la puerta” eta horrelakoak esaten zizkidan. Quechua hizkuntza tartekatzen zuen. Ni lasaitzen saiatu nintzen baina ez zidan kasurik egiten. “Me tienes que dar plata” esaten zidan, atea ordaindu egin behar nuela. Atea konpondu nion, lasaitu nuen, jatekoa eman nion eta halaxe alde egin nuen. Quechueraz ari zenean bazirudien bertako jainkoei deitzen ari zela, maldizioka. Total, bertatik atera eta bi kilometrorra aurkitu nuen langileen kanpamentua. Han izugarritzko giroa aurkitu zuen, jatekoa soberan... bi kilometroengatik, baina hala gertatu zen.

ezkutuak bilatzen saiatu naiz, baina ez edonola. Naturari, mendiari garrantzi handia eman diot eta beti saiatu naiz dokumentatzen toki batera abiatu baino lehen, jakinmina asetu ahal izateko. Ezusteko asko hartu ditut.

■ 6000 kilometrotan leku asko ikusteko aukera izango da, baina bat nabarmentzekotan, zein aukeratuko zenuke?

Oso zaila da bat aukeratzea. Txileko hegoaldean nahikoa leku polita aurkitu nuen. Bertan, maputxeak bizi dira, azken araukanoak. Erreserba batzutan bizi dira eta bertako paisaia ikusgarria da. Ingurune menditsua da, berde-berdea, dena sumendiz josia. Bertan izugarritzko kontrastea dago. Aldamenean dagoen Puerto Montton laku eta mendi ugari daude, eta turismo aldetik oso esplotatua dago. Maputxeen lurraldera aldiz ez da inor hurbiltzen. Kontraste horrek are ederragoa egiten du inguru hura.

“Bertakoen abegikotasunak pilak kargatzen zizkidan. Nik uste dut horri esker iraun dudala bertan urte erdi bat, jendearen animoengatik”

■ Paisaia aniztasuna, leku ederrak aurkitu dituzu, baina pentsatzen dut bertako jendearen artean ere aniztasun eta aberastasun handiarekin egingo zenuela topo.

Jendea, mundiala. Nik apenas nuen bertako jendearen berri eta nuen apurra nahikoa iluna zen, lapurretak eta horrelako gauzak. Nik onartzen dut izugarritzko zortea izan dudala. Jendeak bikain tratatu nau, ez dut inorekin arazorik izan eta bertakoen abegikotasunak pilak kargatzen zizkidan. Nik uste dut horri esker iraun dudala bertan urte erdi bat, jendearen animoengatik.

■ Nolako bizimodu aldaketak aurkitu dituzu zeharkatu dituzun estatuetan?

Aldaketa nabariak daude. Txilek eta Argentinak Europaren antza dute,

pobreagoak dira baina itxura hori dute. Gero, Bolivia eta Peru oso antzekoak dira, oso pobreak. Hala ere, jendea oso irekia da leku guztietan. Han edozer jatera edo edatera gonbidatzen zintuzten edo gaua pasatzeko txoko bat eskaini. Materialki ez dute ezertxo ere. Lagun bat egin nuen bertan. Hiru seme-alaba zituen eta guztiek ohe batean egiten zuten lo. Gero, mahai azpian aitona egiten zuten lo eta han zuten hamaka txiki bat niri eskaini zidaten. Ez zuten ezer, baina munduko pertsona zoriontsuenak ziren. Ni ez nintzen metropoli handietara hurbildu, baina jabetzen naiz bertan miseria larrian bizi direla. Hego Amerika oso matxakatuta dago.

3 Kanpotar asko aurkitu al zenuen zure bidaietan?

Uste baino jende gehiago aurkitu nuen. Jendea asko mugitzen da. Alemaniarrak, frantziarrak... israeldarrak ere dezente. Gehienak motxilekin joaten dira. Bizikletan ere bai, baino gehienak ibilbide ezagunetatik. Euskaldunak berriz, gutxi. Guaraz inguruan bai pila bat, baina bestela azkoitiar pare bat, besterik ez. Jatorriz euskaldunak direnak bai, asko. Nahiko komentario xelebreekin, gainera. Euskalduna nintzela esaten nuenean, "hi euskalduna? txiki-txikia haiz eta!" erantzuten zidaten irribarrez.

3 Guarazera iritsi zinenean, bidaiaren helmugara, zer pentsatu zenuen?

Izugarrizko pena hartu nuen. Denbora osoan pentsatzen ari zara bukatu egin dela eta etxera bueltatu behar dela. Guarazen mendi ibilaldiak egin nituen, eta buelta, etxera.

Denbora gehiago izan banu gelditu egingo nintzatekeen, baina etxera itzuli beharra zegoen.

3 Abioia hartu eta Euskal Herrira iristen zarenean, lehen egunetan aldaketa hori nabaria izango da, ezta?

Oraindik ere bai, pentsa! Izugarritzko kontrastea. Betiko aurpegiak ikusi, inork kasurik egiten ez... Hemengo bizimodura itzuli beharra gogorra izan da. Nik uste dut horrelako bidaiak egitea terapia bikaina dela gure bizimoduaren gaitzez jabetzeko.

3 Eta beste bidaiarik ba al duzu buruan?

Buruan, bidaiak asko! Mundua oso handia da eta oraindik leku asko daude ezagutzeko, jende ezberdinarekin egon eta kultura berri horietatik ikasi. Hori bai, esan nahi nuke askotan ez dagoela urrutira joan beharrik bake pixkat aurkitzeko. Euskal Herrian bertan leku zoragarriak ditugu.

◀ **GORKA ZABAETA**



Jende esku zabala eta abegikorrekin egin zuen topo Xabierrek.

Ibon Esteibar

Tel. 943 86 19 25



MASAJE OROKORRA

KIROL MASAJEA

HANKETAKO ERREFLEXOTERAPIA

OSTEOPATIA

IHINTZA
taberna

Tel. 860473
Urtiaga y Gasset, 3

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



Erribera kalea Tel. 861523

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058



NASAN, HAUTATZE-PROBAK ESITEN ARI DIRA PERTSONA BAT ESPAZIORA BIDALITZEKO.


HONA HEMEN HAUTAGAIAK

ARRANOPOLAR!!




- BRIAN
- BASERRITARRA
- KANTARI FINA


- TYORKATILA
- SUHILTZAILEA
- ESKUZABALA




IPAR-AMERIKAR TXIT AGURGARRIAK



- ESPINETE
- LANGABETUA
- RAFTING NAZIOARTE MAILAKO TXAPELKETAN 6. POSTUA LORTUTAKOA





ARRANOPOLAR

JAINKOA
ERRUDUN

Ja!
Joo!
Ja!
Joo!

Joo! Joo!

Joo! Joo!

Ja! Ja!

HOP!

Joo!
Joo!

Ja! Ja!
Ja!!

ARTISTA HUTSAK
GAIKUK

FISO

Zerk ematen dizu barregurea?



Oscar Waliño

Galdera honek.



Javier Aginagalde "Pitxin"

Askotan... gizarte honek.



Lenn Bux

Politikoeak esaten dituzten txorradek.



Aitor Egaña

Zine katastrofikoak.



Ramon Gaztañaga

Momentu honetan, elkarrizketa honek.



Ibai Korta

Beste batei parrez ikustiak.



Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373



Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa
ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingelesa . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es



Luis Mari Alberdi,
Espainiako Pilota
Selekzioko Zuzendari
Teknikoa

“Uste baino domina gehiago lortu ditugu mundialetan”

Luis Mari Alberdik badaki zer den Munduko Txapelketa bat irabaztea esku pilotan. Gaur egun, Espainiako selekzioko zuzendari tekniko da, eta orain egun gutxi etorri da Mexikon jokaturako Munduko txapelketatik. Berak aitortu duen bezala, emaitza ezin hobekak lortu dituzte mundialetan eta aipatu halaber, Antxon Alberdik bere semeak ere parte hartu duela zesta puntako jokalaririk bezala.

■ Urrezko bost domina lortu dituzue Mexikoko Munduko Txapelketan. Espero zenuten horrelakorik?

Ez, uste baino urrezko domina gehiago lortu ditugu. Hiru bat espero genituen nahiz eta beste bi modalitatetan ere aukeraren ere bagenuen; azkenean dena ezin hobeto irten zaigu.

■ Gainera, printzipioz behintzat, ez zineten talde faborittoa, ezta?

Ez, faborito bezala Iparraldeko ordezkariak azaltzen ziren Mexikorekin batera eta guk geuk ere hor goian ibiltzeko esperantza genuen. Eskuz frontoian bagenekien ondo ibiliko ginela, larruzko paletan ere bai eta emakumezkoetan, paleta goman eta xaren zerbait egiteko itxaropenarekin abiatu ginen. Dena primeran irten zaigu.

■ Arrakasta honen sekretua?

Pilotariak oso ondo prestaturik joan dira txapelketa hauetara, ondo mentalizatuta eta horrek ekarri du partidu zailenentan inoiz baino maila altuagoa ematea, modu berdintsuan, neurrak asko irabaziz.

■ Zure semeetako bat, Antxon Alberdi ere Mexikon izan da zesta puntako taldearekin, zer moduz aritu da?

Zesta puntako taldean lau jokalariz zeuden, horietako bat Antxon. Kontrario zuzena genuen Mexikoren aurka irabazi egin genuen, baina final erdietan Frantziaren kontra jokatzeko tokatu zaitzaigun, bikote indartsuena dudarik gabe. Antxon neurrak honetan aritu zen eta gaizki ez ibili arren, frantziarrek beren nagusitasuna azaldu zuten. Bigarren bikote onena gurea zen zesta puntan baina final aurrekoetan faboritoen kontra egokitu eta kalera joan ginen.

■ Seme bat zesta puntako profesionala, bestea Munduko Txapelketan, Alberditarren saga aurrera doa. Dena den zu esku pilotan aritu zinela kontuan hartuta, penarik ematen dizu semeak zestan aritzea?

Egia da pilota zaletasunak aurrera jarraitzen duela gure familian, maila politean gainera. Bestalde, zestan ibiltzeko penarik ematen ote didan? Ez, beraiek egindako aukera izan da eta nere aldetik laguntza guztia izan dute. Honbre, eskuz hor gora iritsi izan balira, baliteke beharbada ni gustorago egotea, baina zesta aukeratu dute eta nik ahal dudana guztian lagunduko diet.

■ Espainiako eta Frantziako selekzioak Euskal Herriko Hegoaldeko eta Iparraldeko jokalariek osatuta dago ia erabat. Inoiz bi hauek Euskal Herriaren izenean jokatzeko aukerarik ikusten duzu?

Biak batera nahiko zaila ikusten dut, batez ere Iparraldeko pilotari gehienak frantziarrek sentitzen direlako. Hegoaldean berriz, politikarien esku dago erabakia Euskadiko selekzioa aurrera ateratzea edo ez, hala ere optimista naiz.

■ Dirudenez, Mundu Txapelketa honetan antolaketa oso txarra bizi izan duzue, ezta?

Oso txarra bai. Pentsa, txapelketa hasi baino egun batzuk lehenago joan ginen Mexiko aldera behar bezala aklimatazko asmoz, baina hara iritsi bezain laister frontoia oraindik guztiz egin gabe zeudela ohartu ginen, oraindik ez zituztela eraikitzen amaitu, euriarengatik obrak atzeratu egin zirela eta. Juxtu-juxtu inaugurazio egunerako bukatu zuten frontoia. ◀

julio curiel
PELLUQUERO
Gizonezkoentzat
ileapaindegia
Erribera kalea, 23

Loredenda
JEMAR
LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK
Erribera, 1 Tel. 860375

Jesuskoa
Zaletxea
Tel. 861739
OIKIA
ZUMAIA

Leanizbarrutia garaile Txitxarroko lasterketan

Urriaren 31n Txitxarroko Igoera-Jeitsiera txirrindularitza lasterketaren beste edizio bat burutu zen Zumaian. Bertan, afizionatuentzako karrera bat eta profesionalak zein profesional ohientzako erlojupeko froga bat burutu ohi da, denboraldiari horrela agur esanez.

Karrera honek ez du kompetizio giro gehiegirik izaten; alderantziz, festa giroa da nagusi eta txirrindulariek parranda egiteko aitzakia erabiltzen dute gehienbat. Txitxarroko igoera-jaitsiera hau antolatzearen ideia Marino Lejarreta eta beste txirrindulari batzuen eskutik etorri zen.

Pentsatu zuten txirrindulari euskaldunek denboraldiari amaiera polit bat izateko eta hau festa giroan egiteko, zerbait egin beharra zegoela. Horrela, txirrindulari hauek Narciso Korta Txitxarro dantzalekuko jabearekin hitz egin eta proba hau martxan jartzea erabaki zuten. Hasiera batean gainera, erlojuaren kontrako lasterketa aldapa gora egiten zuten profesionalak, Zumaian hasi eta Txitxarro inguruan amaituz. Azken urteetan ordea, gehiegi ez nekatzea-gatik edo, ibilbide hori alderantziz egiten dute, dantzaleku parean hasi eta Zumaian amaitu.

Aurtengo edizio honetan, Alberto Leanizabarrutia Once Deutsche bank taldeko Elorrioko txirrindularia izan da bizkorrena 10 kilometroko erlojupeko proba hori burutzeko. Bizkaitarrak hamaseigarren aldiz parte



hartu du urte honetan Txitxarroko karrera honetan eta denboraldi honetan utziko du txirrindularitza profesionala, hamalau urtetan goi mailan aritu ondoren.

Egin beharreko lana amaitu eta gau partean, txirrindulari guztiak Txitxarro aldera abiatu ziren bertan antolatuta zegoen jai giroan murgiltzera.

Honela gelditu zen Txitxarroko Jaitsiera honetako sailkapena:

1- Alberto Leanizbarrutia	10'50"
2- Aitor Osa	10'52"
3- Iñaki Aiarzaguena	10'56"
4- Aitor Kintana	10'58"
5- J. Elizburu	11'04"
6- Pedro Horrillo	11'08"
7- David Etxebarria	11'12"
8- Jose Ramon Uriarte	11'16"
9- Roberto Laiseka	11'18"
10- Unai Osa	11'25"

Beristain ondo

Bestalde, Txitxarroko proba hori alde batera utzita, ziklo-kroseko denboraldiari eman zaio hasera. Urriko azken asteburu honetan lehenengo lasterketa korritu zen Igorren, Bizkaian. Karrera honetan Igor Beristain Kaiku taldeko txirrindulari zumaiarrak hartu zuen parte, emaitza ona lortuz. Helmugan hirugarren postuan sartu zen, Peter Willemsems belgiarra eta David Seco bizkaitararen atzetik. Ea ba hirugarren postu hau denboraldi on baten seinale den.

◀ IGOR URANGA

HARATEGIA URDAITEGIA
Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak
Erribera kalea, 20

KABI
TABERNA - ZUMAI
Tel. 143379

Euskal pilota ikastaro bat martxan dago

Urriaren 30an hasi eta azaroaren 28a bitartean, Euskal Pilotaren inguruko ikastaro bat martxan da Zumaian. Ikastaro hau, Urola Kostako Mankomunitateak antolatu du Kirola Euskeraz deituriko programaren barnean. Lehen aldia da era honetako ekimen bat bultzatzen dena Zumaia mailan.

Ikastaro honek alde teoriko bat du Foronda Kultur Etxean burutzen dena eta alde praktikoa ere bai Odieta

pilotalekuan praktikan jartzen dena. Ikastetxeetan edo pilota taldeetan ikasten edo irakasten dabilzanentzat eta euskal pilotarekin interesa duten guztientzat dago zuzendua. Lehen-tasuna ematen zaie gainera, Mankomunitateko herrietan bizi direnei. Aipatu, parte-hartzaileek agiri bat jasoko dutela amaieran.

Ikaspilotako irakasle titulatuek ematen dituzte klaseak eta jorratzen diren gaiak honako hauek dira: euskal

pilotaren historia, oraina eta geroa; pilotagintza, pilotan ikasteko eta irakasteko prozesua, joko zaharren hastapena eta saio batzuen adibideak azalduko dira bukatzeko.

Guztira bost astez luzatuko da Euskal Pilotaren inguruko ikastaro hau eta astean bi saio egiten dituzte, bat ostiralean, arratsaldeko 6etatik 8ak bitartera eta bestea larunbatean, goizeko 9etatik eguerdiko ordu batera. Beraz, denera 30 ordu. ◀

Ez da ustekabekorik plaiertako txapelketan

Hilabete igaro da Zumaiako plaiertako txapelketa hasi zenetik eta orain arte ikusitakoaren arabera, ezusteko handiegirik ez da egon. Gainera, oraindik partidu gutxi jokatu dira eta

azaroa pasatu arte behintzat ez da jakingo argiegi zein talde agertuko diren indartsuen.

Aurreko alean adierazi genizuen bezala, hamalau taldek hartzen dute

parte hiru multzotan banatuta. Bakotzetik lehenengo biak Ligarako sailkatuko dira eta gainontzekoek Kopa jokatu dute. Multzo horiek honela daude banatuta:

A taldea

- 1- Txikixa Pub
- 2- Siete Mares
- 3- Ipurbeltz Gaztañaga Garraioak
- 4- Trapaia Taberna

B taldea

- 1- Ekin Elektrizitatea Buitraker
- 2- Kabi Taberna
- 3- Ederki Herri Biltokia
- 4- Muebles Artetxe
- 5- Inpernupe

C taldea

- 1- Bar Restaurante Basarri
- 2- Basterrikalde
- 3- Hiru Ezkur
- 4- Xolskaer
- 5- Axier Kirolak

Hilabete honetan jokatu diren partiduak honako hauek izango dira:

•Azaroak 8 (12etan)

Ekin Elektrizitatea Buitraker/Ederki Herri Biltokia
Bar Restaurante Basarri/Hiru Ezkur

•Azaroak 15 (8:30etan)

Txikixa Pub/Ipurbeltz Gaztañaga
Siete Mares/Trapaia Taberna

•Azaroak 22 (10:30etan)

Ekin Elektrizitatea Buitraker/Muebles Artetxe
Bar Restaurante Basarri/Xolskaer

•(12.00etan)

Hiru Ezkur/Axier Kirolak
Ederki Herri Biltokia/Inpernupe



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

KUKUTZ
serigrafia

paperezko poltsak dauzkagu dendarientzat
zure diseinuarekin koloretan

Baltasar Etxabe, 7 Tel. 943 86 05 69



LIBRERU DENDA

opariak

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569

Jende ugari bildu zen Oxford-en ospatutako festa honetan



Euskararen Festa

"Pitxurri!", "Nire bihotzeko melokotoi potea", "Nor litzateke izotz zure ahoaren menpe egoteko"... Eta gero esaten dute herri honetan ez dagoela imajinaziorik. Halako gauzak ez al zaituztete animatzen? Bada, ikusiko duzue irakurtzen jarraituz gero!

Gu ere horrelaxe animatu ginen tabernetan jarri genituen buzoiak bete-betetak zeudela ikusi genuenean. Eta zer esanik ez, bertan zeuden 350 piropoak irakurri ondoren (badakigu ez zeudela guri zuzenduak, baina amets egitea libre omen da eta!).

Pintxo Lehiaketa

Aurtengo II. Pintxo Lehiaketan 10 tabernak hartu zuten parte. Onenaren saria Txikixak eraman zuen eta orjinalenarena Trapaia. Baina guztiek ere itxura ederra zeukaten! Eta zaporea ere horrelakoxea edukiko zuten. Galdetu, bestela, epaimahaiari egon zirenei, datorren urtean etortzeko desiratzen baitzeuden!

Animo honekin ekin genion II. Euskararen Festa antolatzeari.

Gure asmoa euskal gune bat sortzea zen; gure ustez, herri honetan gure hizkuntza bultzatzeko ez baitira ekintza asko egiten. Helburu hau betetzearren antolatu genuen iaz Euskararen Festa. Eta orduan sortu zen giro polita ikusirik, aurten ere egitea erabaki genuen.

Hasiera batean urriaren 3an egitea pentsatu arren, eguraldia zela eta hurrengo asteburura atzeratu genuen. Hurrengo egunean eguraldi ona ikusi eta janaria prest zegoenez, festaren ordezkari gozoa egin zen. Hurrengo asteburuan, hilaren 10ean, pentsatuta genuen Euskararen Festa egin genuen Oxford-en (badakizue, badaezpada...). Hori bai, aurreko urtekoarekin konparatuz, berrikuntza batzuekin. Hauen artean,

Trikitilariek jarri zuten giroa ere ez zen nolanhikoa izan. Hori da umorea zutena Ana, Oihana eta Arantxak! Bertsolariek ere giro polita sortuko lukete, baina festaren dataekin egon zen gaizkiulertu baten ondorioz ezin izan genuen beraien bertsoekin gozatu.

Salmentan jarri ziren pintxoaren kopuruarekin, berriz, ez genuen gehiegi asmatu. Aurreko astean krocketak eta txanpinoiak oso ondo saldu ziren, eta Euskararen Festan ere dezente saldu bazen ere, egin genuen aurrikuspena exageratu samarra izan zen; karrokada bat janari eraman baitzuten batzuek etxera.

Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422

Malaur

Euskarazko Piropo Lehiaketa

Bestalde, Piropo Lehiaketako epaimahaiak nahiko lan izan zuen piropo onena aukeratzeko orduan. Izan ere, makina bat piropo polit jaso ziren. Guztien artean irabazlea Xabier Azkuek idatzitako hau izan zen:

*"Hegan zoazen pinpilipauza
har ezazu nigan atsedena"*

Beste zenbait piropok ere jaso zuten epaimahaiaren aipamena:

*"Debekatua egon beharko zenuke
dependentzia sortzen baituzu"*

*"Biok itsusiak gara, baina
badakizu minus eta minus plus
dela"*

*"Zure begiek gauaren iluntasuna
kentzen dute"*

*"Zure izate hutsak nigan sorta-
razten duen sugarrak ukitzen
dudan guztia kiskaltzen du"*

*"Ilargi beteko gauaren argitasuna
gutxi da zure edertasunarekin
konparatuz"*

"Nire olibatxo goxua!"

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkiegu II. Euskararen Festa aurrera eramaten lagundu digun jende guztiari, eta bereziki Inpernupe elkarteari (zuek jan zenituzten pintxoak beraiek egin baitzituzten) eta Moisi (kroketak egiten lagundu zigulako bi asteburutan). Eta baita zuei ere, zuen parte-hartzeagatik.

◀ TXOMIN AGIRRE AEK EUSKALTEGIA



Piropo lehiaketako irabazlea.



Pintxo lehiaketako epaimahai aditua, lanean gogor.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

ILE APAINDEGIA

herrea
Uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342



GILANO

LIBURUDENDA

Paperdenda

Aldizkariak

Fotokopiak

Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7

Tel. 143191

BALEIKE

1998ko azaroa, 51. zenb.

Kutsadurak ura
ondasun garestia
bihurtzen du.



Urre gardena

XXI. mendean Munduko populazioaren erdiak baino gehiagok ur beharrak asetzeko arazoak izango ditu

Urreak kolore ugari izan ditu historian zehar. XIX. mendera arte, urretzat hori kolore metal baliotsua ulertzen zen. Urrea zen –eta oraindik da– aberastasuna neurtzeko erabiltzen zen kriterioa. XX. mendean, urre beltzaren nagusigoa etorri da. Petrolioak gure zibilizazioa mugiarazten duen errekin nagusia izanik, balio handiko ondasuna bihurtu da. Kolore gorriko urreaz ere hitz egiten da –odola– medikuntza munduan. Baina datorren mendeko urreak ez du kolorerik izango. Ura ondasun urria bihurtuko da, eta beraz baliotsua. Munduko populazioaren gehiengoak ez du behar adina ur izango, eta horrek ekar ditzakeen ondorioak ez dira nolanhikoak izango. Urre eta petroliorik gabe bizi daiteke, baina urik gabe ez.

Ingurugiro arazoez hitz egiten dugunean, geure ingurune hurbilera mugatzeko joera dugu. Horrela, uraren eskasiaz mintzatuz gero, horrek gurekin zerikusirik ez duela pentsatzen dugu bat-batean, “hemen euri asko egiten duelako”. Arrazoibide okerra. Uraren eskasiaz hitz egiten dugunean, erabilgarritasunaz ari gara, batez ere. Hau da, ur erabilgarriaren eskasiaz. Ura, berez, soberan daukagu Mundu osoan. Lurraren %70a urez estalita dago. Hori bai, ur horren %97a itsasoko ura da. Gelditzen den ur gezatik %70a Poloetan dago, izozturik, eta beste zati handiena lur azpiko putzuetan. Hortaz, Lurrean dagoen uraren %0,007a baino ez da erabilgarria gizakiarentzat. Hortxe duzue lehen muga.

Bigarren muga, ur horren banaketa da. Lurreko zati batzuek beste batzuek baino ur gehiago jasotzen

dute. Hori argi dago. Horrela eremu hezeak dauden bezalaxe, basamortuak ere aurkitzen ditugu.

Bi muga hauek naturak ezarritakoak dira, eta gizakiak beti jakin izan du hauetara moldatzen. Orduan zergatik sortzen ari da desoreka? Zergatik horrenbeste kezka datorren mendeari begira?

Erabilgarria den ur hori nola erabiltzen den da kontua. Gaur egun mende hasieran baino sei aldiz ur gehiago kontsumitzen dugu. Pentsatu behar da populazioak ikaragarri egin duela gora eta jende guzti horri jaten eman behar zaio. Kontsumitzen den uraren %93a nekazaritzarako erabiltzen da –ureztatu behar diren lursail handien eredia eztabaidan jarri beharra dago–. Honek egoera jasangaitzak eragin ditu leku askotan, ur jarioak eman dezakeena baino gehiago

kontsumitzen ari baita, Aral itsasoaren kasua adibidez.

Beste arazo bat kutsadurarena da. Ura zabortegi modura erabiltzen dugu eta horren eraginetako bat argia da: ura hortxe dago, gure muturren aurrean, baina ezin dugu erabili. Ur kutsatua gaixotasun iturria da eta ibaietako bizitzarekin amaitzen du, besteak beste.

Ikusten denez, ura eskasten bihurtzen ari da, eta horrek gure mundu honetan esan nahi du gero eta garestiagoa izango dela. Urre gardena. Datorren mendean uraren arazoa Lurrak izango duen erronka handienetakoa izango da. Hurrengo zenbakian ikusiko dugu NBEK –Nazioa Batuen Erakundeak– egindako txosten batek proposatzen dituen bideak.

◀ GORKA ZABALETA

ONCE

JOXE
MANUEL

Kupoi batzuk
erosi eta ...

ZORTE ON !!


Tel. 862347 - 861001

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!



Artea zumaian

Gure Artea Euskal Herri mailan arte arloan dagoen lehiaketarik garrantzitsuenetakoa da. Lehiaketa honetara era guztietako artelanak aurkez daitezke: pintura, eskultura, instalazioa, argazkia, bideoa...

Aurtengo edizioan 150 artistek aurkeztu dituzte beren obrak, horietatik 20 hautatu dituzte, tartean Ander Hormazuri zumaian artistaren obra bat.

Gure Artea 98ra, A. Hormazurik, instalazio bat aurkeztu zuen eta argazkian ikus dezakezuen zurtasuna da obra honen ezaugarri garrantzitsua. Objektuek eta hauek okupatzen duten espazioek bat egiten dute, aldi berean, itzalen bitartez, objektuen bolumenak eta formak mantenduz baina oinarritzko zentzua galduz.

Anderren obra hautatuetariko bat izatea Zumaiako artistek arte

munduan duten lekuaren adierazle da. Ea hurrengo batean, Guggenheimerera joaten garenean, beraien obrak han topatzen ditugun. ◀

Zumaiako Argazki Zaharren liburua

Zumaiako 650. urteurrenaren inguruan garatu diren ekintzen artean, Zumaiako argazki zaharrei buruzko liburu bat kaleratzea proposatu zen. Javier Carballo izan da ideia iturburua eta udal-txeari proposamena luzatu ziona. Ideia onartu eta honako lantaldea aritu da lanean: Udaleko kultur arduradunak, Javier Carballo

argazkilaria eta Ismael Manterola arte eta historia irakaslea.

Argazkiak, batez ere, Kutxa eta Zumaiako Udaleko fototeketatik eta Javier Carballo eta Josu Gutierrezen kolezioetatik eskuratu dituzte. Aukeraketa ez omen da batere erraza izan eta denak sartzea ezinezkoa zenez, 300 argazki inguru hautatu dituzte.

Liburuan, argazki hauek guztiak gaika sailkatuak azalduko dira: paisajea, festak eta kirolak, portuari buruzkoak, Zumaiako txoko eta eraikuntzak, herriko taldeak, lana, erlijioa... Gabonak aldera kaleratuko da.

◀ **ESTI ESTEBAR**

Nikol  **Enea**
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

ZINE FORUM

Azaroak 19

Medianoche en el jardín del bien y del mal (1998)

Zuz: Clint Eastwood

Akt: Kevin Spacey, John Cusack

Nork pentsatuko zuen orain 35 urte Almerian western italiarrak egiten ari zen gazte luze hura, mende bukaerak zinegile bikain eta fidagarrienetakoa bihurtuko zela. 1992an zine historiako pelikularik onenetakoa, *Sin perdón* izugarria egin zuenetik takada batean ari da zine ona egiten: *Un mundo perfecto*, *Los puentes de Madison*, *Poder absoluto*. Zumaian azaroan ikusgai izango dugun hau bere karrera luzeko arraroena da dudarik gabe. Estatu Batuetako hegoaldeko Savannah hiriko kronika bat egiten du Eastwood jaunak, eta bertan hilketak, epaiketak, homosexualitatea, vudua, jazza, pertsonaia estrefalarioak, eta beste hainbat gauza eta egoera aurki dezakegu. *Medianoche en el jardín del bien y del mal* Hollywooden independentzia guztia mantentzen duen maisu baten azken lana da. Filme bikaina benetan.

Abenduak 3

Normal life (1997)

Zuz: John McNaughton

80ko hamarkada bukaeran *Henry, retrato de un asesino*-rekin amerikar zineari ipurdiko galanta eman ondoren oso gauza gutxi jakin dira John McNaughton-i buruz. 1993an Martin Scorsesek ekoiztutako *La chica del ganster* komedia arraroarekin Holliwooden sartu zen, baina filme honek izan zuen karrera komertzial eskaxa ikusita, laister berriz ere kalean ikusi zen Chicagoko zuzendaria. Lau urtetan bere proiektuak pantailetara eraman ezinik egon ondoren, *Normal life* txalotuarekin berriz gure artean dugu. Filme hau drama izugarri gogorra da, inongo errukirik gabe polizia batek eta armak maite dituen neska batek osatzen duten bikote baten "bizimodu normala" kontatzen duena. McNaughton-ek bere ohiturari jarraituz, ez du inongo gozotasun artifizialik sartuko bere filmean, bizitza den bezala kontatuko digu.

Urte horretako Sitges-eko zinemaldian aurkeztutako lan hau 1997ko pelikularik onenetakoa bihurtu zen. Milenio bukaerako altxorretako bat.

Oharra: *Normal life* jatorrizko bertsio azpigitulatuaren eskainiko da.

Irakurketarako aukerak



Euskaraz

<i>Samurai berria</i>	Josemari Velez de Mendizabal
<i>Oraingo gazte eroak</i>	Joxe Azurmendi
<i>Bidaia sentimental laburra</i>	Italo Svevo/ Maite Lopetegi Conpano
<i>Euskal deituren izendegia</i>	Euskaltzaindia
<i>Giza anatomiako poltsiko atlasa</i>	Heinz Feneis



Gaztelera

<i>Peon de rey</i>	Pedro Jesús Fernandez
<i>La Navarra maritima</i>	Tomás Urzaingui
<i>Recuerda, cuerpo</i>	Marina Mayoral
<i>El diario de Bridget Jones</i>	Helen Fielding

Haurrak/Gaztetxoak

<i>Lapitz baten ibilerak</i>	Maite Gonzalez Esnal
<i>Ezkutulekua</i>	Mercé Escardó
<i>Aingeru guardakoa, ez izan ganorabakoa</i>	Seve Calleja
<i>Irribarrez hil</i>	R. L. Stine



SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416



Rosi garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

azaroa

ERAKUSKETA

Juan Ramon Ilavori Romatet zumaia-
rraren "Etorkizunerako begirada"
izeneko argazki erakusketa

- ▶ Azaroan
Forondan

ERAKUSKETA

Arantxa Santamaria zumaia-
raren erakusketa

- ▶ Azaroaren 8ra arte
Azkoitiko Etxebeltz erakustokian

KONTZERTUA

"La Trella" abesbatzaren kontzertua

- ▶ Azaroak 6, ostirala

IPUIN KONTAKETA

"LAPIKOTA" taldearen eskutik

- ▶ Azaroak 10, asteartea eta abenduak 1,
asteartea, arratsaldeko 5:30etan
Haurren liburutegian

MENDI IRTEERAK

Inda Mendi elkarteak antolatutako
mendi irteerak

Egun guztirako ibilbidea: Lalastra -
Recuenco - Lalastra

- ▶ Azaroak 15ean, igandea

Goiz buelta: Tolosa - Urdelar - Eldua

- ▶ Azaroak 29an, igandea

KONTZERTUA

Mari Carmen Azpeitia (organoa) eta
Garikoitz Mendizabal (txistua)

- ▶ Azaroak 14, larunbata
Parrokian

UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Santa Zezilia eguneko kontzertua

- ▶ Azaroak 22, igandea. Egurdiko ordu
batean
Maria eta Jose aretoan

ZINE FORUM

"Medianoche en el jardín del bien y
del mal" (1998)

Zuz: Clint Eastwood

Akt: Kevin Spacey, John Cusack

- ▶ Azaroak 19, osteguna, gaueko 10:15etan
Aita Mari zinean

PINTURA TAILERRA

Ikasturte osoa irauango du. Bi aukera
daude:

- Astelehen eta asteazkenetan
arratsaldeko 6:30etatik 8etara.
- Astearte eta ostegunetan,
arratsaldeko 3etatik 4:30etara.

Ikasturte osorako matrikula 1000
pezetakoa da eta hilero kopuru bat
ordaindu behar da.

Izen ematea: Forondan (943 86 10 56)

ARGAZKI LEHIAKETA

Zumaiako gazteei zuzendutakoa da,
Kale Hezitzaileek antolatzen dute eta
lan onenekin hilaren amaieran
erakusketa bat egingo da.

Jarraitzen duten
ikastaro eta
zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Helduentzat

- ▶ Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta
16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

- ▶ Asteleheneetik ostiralera,
16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

- ▶ Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Liburutegian.

- ▶ Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta
16.30 - 19.30

ARGAZKI LABORATEGIA

Txuri-beltzeko argazki labora-
tegia.

Forondan

LUDETEKA

Haurren txokoa.

- ▶ Asteazkenetik ostiralera, 5 - 7:30
- ▶ larunbatetan, 3 - 6
Tel: 943 14 32 64

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ERAKUSKETA: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574

Yogurra eta atuna latan

Bai, noski, izenburu xelebrea da, atentzioa deitzeko bakarrik zen eta ia hemen zaudenez bi diskori buruz hitz egiteko aprobeztatuko dugu. Kaleratu berriak dira biak eta Euskal Herrian undergrounda existitzen bada biek dute leku garrantzitsu bat kajoi pijo hortan. Jarrera undergrounda baino gehiago: estilo jakin bat, estetika bat, kanpotikako modelo batzuei jarraitzea... hauena ondorio bat da. Dena da hasiera batean underground, gero batzuek lurrazalera irtetzea lortzen dute, beste batzuk hodeietaraino igotzen dira, eta azkenik beste batzuk ziegetan geratzen dira betirako. Baina nahi dutena egiten dutenez, leku horietan aurkitzen dira gauza interesgarrienak.

Goazen ba yogurrarekin: 6 nemen 9 dira, elgoibartarrak, bi maketa kaleratu zituzten, 'Euskadi Gaztea'ko maketa lehiaketa irabazi zuten 93an edo, Zumaian pare bat aldiz ikusi ditugu, eta disketxe batekin harremanetan ibili ondoren azkenean autoproduzituriko CD bat atera dute Little Fish-en estudioan grabatua. Azalean 'gorputz danone' batek ipurdia eskeintzen digu eta izenerako ere enpresa horren anagramaz apropiatu dira. Dena oso kitscha. 'Pop-atic' da CDaren izenburua eta hori da barnean aurki dezakeguna: Pop eguzkitsua, oxigenoa arnastu daitekeen leku bat. Garai bateko gitarra noise-ak garbiagoak dira, melodia ilun haiek orain optimistagoak dira... oraindik ez



dira Beach Boys, baina hori Elgoibarren hondartzarik ez dagoelako izango da. Kantuak: gero eta garbiago ikus daiteke talde hontan gauza garrantzitsuena kantuak direla; kantu oso pertsonalak, lirikoak asko, eta letra landuekin. Bateria ume haundi bat da eta koro anakroniko batzuk ere badaude aidean. Ez da rocka, ez da popa ere ia; hala ere kantu herrikoiak ez direla esatera ere ez gara ausartzen, jendeak ez luke ondo ulertuko. Beno, bai, kantu herrikoiak dira eta punto. Beraz, prejuiziorik ez duenak 'Ihintzan' har dezake 'Pop-atic' 1500 peztaren truke.

Atuna latan: Hauek azkoitikoak dira, eta 'Akauzaste' izena dute, maketa bat atera zuten duela urte batzuk atun

lata batean sartua zetorrena. Musika irekia egiten dute: industrialia, noisea, free, esperimentazioa, gitarrak, pianoak, tronpetak, bi bateria garai batean, txatarra, poesia, espontaneitatea eta teatralitatea. Azkoitiko matadero inguruko jendea da eta bertan grabatu dute 'Esan Ozenkik' atera dien CD honen material gehientzuen. "Ur gardenak" du izena eta W.k esaten duen bezala "ez dakigunaz hobe da ixilik egotea". Beraz itsu-itsuan egingo dugu salto uretara; agian batzuk haitzen kontra estapatuko gara, eta beste batzuk ur-zurrunbiloak irentsiko gaitu. Baina beti izango da hobe salto egitea kanpoan begira geratzea baino, ezta?

◀ ION MANZISIDOR.

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

T
TXOKO A
B
E
R
N
A



Artadi auzoa
Tel. 862189

xirula



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705



Barra-barra

Urtero izan ohi da azaro inguru honetan itsaso txarreko bolada bat. Barra zaharrea nolakoak gertatzen ziren gauza jakina da, eta bestela begiratu argazkia. Barra berria ere urtero agertu ohi zaigu mutur aldetik hautsita. Aurtengoan zer? Itsasoak esango digu!

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! Berriz ere tartak ematen hasi gara!!!



Zeinek antolatzen du tabernarien arteko pintxo lehiaketa?

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, azaroaren 20a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!

Urrian erantzun bakar bat ere jaso ez genuenez, beste aukera bat emango dizuegu.

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 862387



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22

Tel./Faxa: 143143



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169

motxian hi!



zein: Ainhoa
zer: Kamarera
nola: Getari

Noiz etorri zinen Getariatik Zumaiara?
Datorren urtian 3 urte egingo ditut.

Zer egiten duzu zure denbora librean?
Zeramikako kurtsiloa egiten ari naiz, eta pirografiarekin ere banabil. Jendia animatu behar da gauzak egitea. Gazte izan!

Zer esango zenioke Aita Santuari? eta Aznar-i?
Errealtatia ikustia.
Buruko mina ez emateko.

Talde edo kantante baten fans-a al zara?
Pila batena. Adibidez Bob Marley eta La Polla.

Zerk ematen dizu nazka?
Hipokresiak, itxurak eta gezurrak.

Estazioko kafetegian lan egiten duzunez, zer deritzozu trenen puntualitateari buruz?
Puntualitatea ona da baina norbait kolgatuta geratzen bada denbora asko egon behar du itxaroten.

Zure burua defini ezazu.
Beleta bezela naiz, denekin gustatzen zait egotia.

Nora joango zinake bidaiatzera?
Lehenbizi Euskal Herria ezagutuko nuke eta gero mundua.

Zer egingo zenuke ohe borobil batean?
Amets egin, baita ohe kuadratu batean ere.

Idolo izena merezi al dezue Getaiarrok?
Ez, ez gara idoluak, lapajaleak gara.

Zein festa dituzu gogokoen?
Festa guztiak gustatzen zaizkit. Tradizioak segi beharra dago.

Zer da zure bizitzan garrantzitsuena?
Lagunak, eta hauek zaintzea eta errespetatzea, baina gehiena Manueltxo eta Beltzatxo pozik bizitzea.

agurrak

Zumaia, 1998ko urriaren 24a

Maitasun baten hasiera:

Hemen nao, neure gelan giltzapetuta, bakardadean, gustoko bakardade batian. Zeba??, nolatan galdetzen iazu hori! Ezagutu zintudanetik ez det beste ezertan pentsatzen.

Zeatik ein zenidan irrifarre, irrifarre hua neure madarikaziua izan zan.

Etzait sekula ahaztuko: Barran neon, esku bat barran apoiauta eta bestian kalimotxo ear bat, beizet albora eta hantxe zinan, kalimotxo eta dana erori zitzaidan.

Madarikatset egun hura, baina bihotzez maite haut.

Ezagutzen gea, hurrengo zapatuan ikusiko gea...BERRIRO.

Ezagun baten agurra

P.D.: Beak bazekik/n beretzako dala.

DORRON, ze galdu zaik Getarian??. Azkenaldian korrika gehiegi iteek.

Pintore, beti ardo kolore...

PRI. Oñati es muxo Oñati

Hi Mitxelorrr, Zein dek Karnele???
Hik ere jertsia zikindu al huan? pillin... polla loca!!!

Aberria ala hil.

K.T. team

EGINGO DUGU, la ostrako kanika taldea.

Amperio txikia, bai, ta eskasa... beste hainbeste.

ZE Peio... barrua busti eta nahikoez, kanpoa ere busti egin behar, betire...

Aurrera bolie team.

Bi muxu.

Keporro gaztainak erretzen bezala danbo-linean!!!

Epeldeeee, umiai burua jaten y que estabas a dieta, qué me han dicho a mí? Ladies and gentleman Wellcome in the supermarket
Epelde's is a very very big head

Bektra zorro hori!! sustua pasa al tzaik?
Egaña ez!!! bakalaua martxan gainera han!
Edan patxaran ta jungaiz tranpo egineon!!!

Tel. 143278
Maite
ileapaindegia

MENDI - ONDO c.B.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- .Banakakoak
- .Kolektiboak
- .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14Tel. 860074 - 861569


Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Carpintería metálica

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak


Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

Kresala

— edergintza —

BALTASAR ETXABE, 5
TEL./FAXA:
943 14 31 35

- depilazioa (beroa edo epela)
- minik gabeko depilazio elektrikoa
- aurpegirako tratamenduak
- gorputzerako tratamenduak
- gorputzeko masajea
- manikura eta pedikura
- betileen tindaketa eta permanentea
- lurrinak eta kosmetikoak: makilajea, nezeserrak...



SOLARIUM BERRIA!

CU-MARINE eta BRISA DEL MAR lanparak

10 minutuko saioak

AZARO ETA ABENDUKO
ESKAINZA:
10 saiorako bonua: 7.000 pta

galdetu beldurrik gabe
tratamenduetarako kontratuen prezioak,
zeure mesedetan

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

zatoz ikustera!



PEUGEOT **206** berria